



PRENTSARAKO OHARRA

18/12/20

2019ko Aurrekontu Orokorren Proiektuak Batzarretako bere tramiteagaz jarraituko dau, 13 aldaketa sartu ostean

Bizkaiko Lurralde historikoko Aurrekontu Orokor Proiektua onespenerako aurkeztuko da Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokoa, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean eztabaidatu diran 676 zuzenketa-eske parzialetatik sortu diran 13 aldaketak sartu eta gero.

Abenduaren 18, 19 eta 20an, Bizkaiko Foru Aldundiko zortzi sailtako bako txaren aurreikuspen ekonomikoan aurkeztutako zuzenketa-eske parzialen eztabaida saioak egin dira. Horreetatik hirutan (Iraunkortasun eta Baliabide Natural saila, Herri Administrazio eta Erakunde Harreman saila eta Gizarteratze eta Berdintasun saila), haserako proposamenagaz jarraitu da, eta beste bostetan (Gizarte Ekintza Saila, Euskera eta Kultura saila, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino saila, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen saila eta Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun saila), aurrekontuen aurreikuspenaren alderdiren bat aldatzen eben 13 zuzenketa-eske onetsi dira.

Aldaketa horreek, EAJ/PNV eta PSE-EE alderdiek batera aurkeztu dituen 7 zuzenketa-eske eta talde bi horreek Talde Mistoagaz (4) eta EH Bildugaz (1) adostutako 5 onetsi ostean etorri dira. Aurrekontuak talde guztien artean adostutako zuzenketa-eske bat be jasoten dau.

Isabel Sánchez Roblesekin zuzentzen dauen sailak aurkeztutako aurrekontuaren barruan, Euskadiko Down Sindromearen Fundazioari bideratutako prestazioa 60.000 eurotan handitzea erabagi zan talde guztien artean.

Euskera eta Kultura Sailari jagokonez, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutako zuzenketa-eskea onetsi zan, 45.000 euroko partidea luzatzeko Euskadiko Meatzaritza Museoaren Fundaziorako; eta baita hiru zuzenketa-eske transakzional Foru Gobernua eusten daben taldeen eta Talde Mistoaren artean: irabazi asmorik bako erakundeek udan Bizkaian gazteakaz egiten dituen udalekuetarako eta kanpalekuetarako zuzendutako partidari 50.000 euro gehiago bideratzeko; Euskeraren ezagutzaren sustapenari laguntzeko 100.000 euro gehiago zuzentzeko; eta eskola kirolean parte hartzen daben erakundeei 50.000 euro gehiago emoteko.

Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino saila izan da bere aurrekontuan aldaketa gehien jaso ditua, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek batera aurkeztutako 5 zuzenketa-eske partikular eta Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu taldeen artean adostutako zuzenketa-eske transakzional bat onetsi eta gero.

Foru Gobernua eusten daben taldeen zuzenketa-eske partikularak dirala eta handitu egiten da garraio publiko zerbitzura zuzendutako zuzkidurea, “zerbitzua egokitzeko”: 655.000 euro gehiago bideratuko dira Busturialdeko eta Lea Artibaiko garraio publiko zerbitzura; 120.000 euro gehiago Ezkerraldeko-Meatzaldeko garraio publiko zerbitzura; 55.000 euro gehiago bideratuko dira Txorierriko-Mungialdeko garraio publiko zerbitzura; 35.000 euro gehiago Enkarterriko garraio publiko zerbitzuko partidara; eta

635.000 euro gehiago bideratuko dira Nerbioi-Arratia eta Durangaldea garraio publiko zerbitzura.

EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu taldeen artean adostu dan zuzenketa-eske transakzionalak 50.000 euroko partidea sortzea proponiduten dau, Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028 Plan Estrategikoaren inguruan egiten ari dan azterlanean, Bizkairako txartel bakarraren proposamenaren eskumenen, bideragarritasunaren eta kostuaren ganeko atal berezia sartzeko.

Imanol Pradales Foru Diputatuak zuzendutako sailari jagokonez, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek osatutako gehiengoak, Automotive Intelligence Center (AIC) Fundazioak eskatutako milioi bat euroko diru-laguntzea, kontsignazino izendun moduan tramitetera zuzendutako zuzenketa-eske parzial bat atera dau aurrera.

Eta bukatzeko, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun sailaren aurrekontuetan 50.000 euro gehiago sartu dira emakumeen egoitzetako egotaldietara zuzendutako laguntzak indartzeko. Azken aldaketa hori, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Mistoa taldeen artean adostu dan zuzenketa-eske transakzionaletik etorri da.

HERRITARREN ZUZENKETA-ESKEAK

Egun honeetan eztabaidatu diran zuzenketa-eske parzialetako batzuk, Bizkaiko Batzar Nagusiek horretarako prestau dituen bideak erabilita 2019ko ekitaldirako Aldundiaren aurrekontuaren aurrean aurkeztutako herritarren zuzenketa-eskeen ondorioz etorri dira. Batzarretako arautegi barriak, herritarren partaidetzari jagokonez zabaldu dauen bideari jarraituz, herritarrek euren zuzenketa-eskeak aurkeztu ahal izan dituen laugarren urtea da, oso arazo zehatzei erantzuteko edo hainbat gaitan Aldundiaren parte hartzea iradokiteko.

Aurtongo ekitaldiari jagokonez, onetsi diran hamahiru aldaketen artean azpimarratzekoak dira Euskadiko Down Sindromearen Fundazioari bideratutako prestazinoa handitu izana eta Euskadiko Meatzaritzaren Museoaren Fundazinora zuzendutako zuzkidura bat sortu izana. Biak, urriaren 31tik abenduaren 13ra erregistraut diran zuzenketa-eskeetako batzuen ondorio dira.

NOTA DE PRENSA

20/12/18

El Proyecto de Presupuestos Generales para el año 2019 seguirá su trámite parlamentario tras incluir 13 modificaciones

El Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia será presentado para su aprobación en el pleno de las Juntas Generales de Bizkaia tras la inclusión de 13 modificaciones fruto de las 676 enmiendas parciales debatidas en el seno de la Comisión de Economía y Hacienda.

Durante los días 18,19 y 20 de diciembre han tenido lugar las sesiones de debate de enmiendas parciales presentadas en la previsión económica para cada uno de los ocho departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia. En tres de ellos (Sostenibilidad y Medio Natural, Administración Pública y Relaciones Institucionales, y Hacienda y Finanzas) se mantuvo la propuesta inicial, mientras que otros cinco (Acción Social, Euskera y Cultura, Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Desarrollo Económico y Territorial, y Empleo, Inclusión Social e Igualdad) aprobaron un total de 13 enmiendas que modificaban al algún aspecto de la previsión presupuestaria.

Estos cambios obedecen a la aprobación de 7 enmiendas conjuntas de EAJ/PNV y PSE-EE, más otras 5 acordadas por estas dos formaciones con los grupos Mixto (4) y EH Bildu (1). El presupuesto recoge también una enmienda acordada entre todos los grupos.

Dentro del presupuesto presentado al área dirigida por Isabel Sánchez Robles se acordó entre todos los grupos junteros, aumentar en 60.000 euros la prestación designada a la Fundación Síndrome Down País Vasco.

El área de Euskera y Cultura, por su parte aprobó una enmienda conjunta entre Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos por la que se incluye una partida de 45.000 euros para la Fundación Museo Minería País Vasco; y tres enmiendas transaccionales acordadas entre los grupos que sustentan al Gobierno foral y el Grupo Mixto. Dichas modificaciones incrementan 50.000 euros la partida destinada a actividades de verano con jóvenes, para la realización de colonias y campamentos de verano en Bizkaia por entidades sin ánimo de lucro; aumenta 100.000 euros la partida destinada a ayudas a la promoción del conocimiento del Euskera; e incremento 50.000 euros la dotación para entidades participantes en deporte escolar.

El Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio ha sido el área que más ha visto modificado su presupuesto tras la aprobación de 5 enmiendas particulares presentadas conjuntamente por PNV y PSE-EE, y una enmienda transaccional acordada entre los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu.

Las enmiendas particulares de los grupos que sustentan al Gobierno foral suponen un incremento de la dotación destinada al servicio de transporte público de diferentes comarcas del Territorio de Bizkaia “en aras a adecuar el servicio”: 655.000 euros más destinados al servicio de transporte público Busturialdea y Lea Artibai; 120.000 euros más destinados al servicio de transporte público Ezkerraldea-Meatzaldea; 55.000 euros más destinados al servicio de transporte público de Txorierri- Mungialdea; 35.000 euros

más en la partida destinada al servicio de transporte Público Enkarterri; y 635.000 euros más destinados al servicio de transporte público Nerbioi- Arratia y Durangaldea.

La enmienda transaccional acordada entre PNV, PSE-EE y EH Bildu, propone la creación de una partida de 50.000 euros para incorporar al estudio que se está elaborando en relación al Plan Estratégico del Transportes público de Bizkaia 2018-2028 un apartado específico en relación a la competencia, viabilidad y coste de la propuesta de billete único para Bizkaia.

Dentro del área dirigida por el Diputado Foral Imanol Pradales, la mayoría formada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han sacado adelante una enmienda parcial dirigida a tramitar la ayuda de un millón de euros solicitada por la Fundación Automotive Intelligence Center (AIC) como consignación nominativa.

Y finalmente, en los presupuestos del Departamento de Empleo, Inserción Social e Igualdad se ha impulsado un implemento de 50.000 euros para el refuerzo de ayudas dirigidas a estancias en centros de mujer. Esta última modificación es fruto de una enmienda transaccional acordada entre grupo Nacionalistas Vascos, grupo Socialistas Vascos y Grupo Mixto.

ALEGACIONES CIUDADANAS

Algunas de las enmiendas parciales debatidas durante estos días son fruto de las alegaciones ciudadanas presentadas al presupuesto de la Diputación para el ejercicio 2019 a través de los cauces habilitados por las Juntas Generales de Bizkaia. Este se trata del cuarto año en el que, siguiendo la vía abierta por el nuevo reglamento de la Cámara en cuanto a participación ciudadana, la ciudadanía ha podido presentar alegaciones para responder a problemáticas muy específicas o sugerir la intervención de la Diputación en diferentes temas.

Concretamente este año, entre las trece modificaciones aprobadas destaca el aumento de la partida designada a la Fundación Síndrome Down País Vasco y la creación de una dotación dirigida a la Fundación Museo Minería País Vasco. Ambas son consecuencia de algunas de las alegaciones registradas entre el 31 de octubre y el 13 de diciembre.